

Donostiako DIPCren ekarpen «nabariak» sarituko ditu Europako Fisika Elkarteak

Aurtengo Passion for Knowledge jaialdiaren baitan, Materia Kondentsatuaren Fisikan eta Materialen Zientzian egindako ekarpen «nabarmenagatik» eta antolatutako askotari-

ko dibulgazio jardueren «arrakastatsuegatik» saria jasoko du Donostia International Physics Centerrek. Pedro Miguel Etxenike presidentek «ohore handitzat» jo du.

Etxebila higiezinak inmobiliaria

ALQUILERES de ESTUDIANTES

AMARA 4 Habitaciones, salón, cocina, 2 baños. Balcón. 900€

VENTAS

ZUMAIA 2 Habit, salón, cocina, baño. Balcón. Exterior. 104.000€

LEZO 3 Habitaciones, salón, cocina, baño. Exterior. Ascensor. 100.000€

LEZO 2 Habit, salón, cocina, baño. Balcón Zona verde. 110.000€

AMARA Alto 2 Habit, salón, cocina, baño. Reformado. 195.000€

AMARA 3 Habit, salón, cocina, baño. Terraza. Reformado. 280.000€

AMARA 130m² en esquina 3 Habit, salón grande, cocina, 2 baños. Terraza y balcón. 450.000€

AMARA ZAHARRA 2 Habit, salón, cocina, baño. Reformado. 234.500€

AMARA OSINAGA 2 Habit, salón, cocina, 2 baños. Nuevo. 289.000€

RIBERAS DE LOIOLA Alto 90m² 3 Habit, salón, cocina, 2 baños. Terraza. 405.000€

GROS Ategorrieta-Ulía 2 Habit, sala, cocina, baño. Ascensor. 210.000€

ANTIGUO 90m² 3 Habit, salón, cocina, baño. Garaje cerrado. Ascensor. 255.500€

LOIOLA 2 Habit, salón, cocina, baño. Balcón. Reformado. 155.000€

HERRERA Apartamento para entrar. Aparcamiento privado. 38.000€

PASAI DONIBANE 4 habit, salón, cocina, baño. Trastero arriba. Balcones. 155.000€

PASAI DONIBANE 3 Habit, salón, cocina, 2 baños. Terraza. Garaje. Trastero. Ascensor. 270.000€

ERRENTERIA Zamatxida. 2 Habit, salón, cocina, baño. Terraza Huerta. 125.000€

AGIÑA Txokoalde 2 Habit, salón, cocina, baño. Tximeneta. Trasteroa. 155.500€

USURBIL 80m² 4 Habit, salón, cocina, 2 baños. Balcón. Impecable. 215.000€

ALQUILER y VENTA PABELLONES y LOCALES

ASTIGARRAGA Pabellón de dos plantas de 200m² +100m² de entreplanta. Puerta grande 1.000€

USURBIL Venta Pabellón de 2.000m² con tres puertas grandes para camiones.

EGIA Local de 40m² con ventana. Baño. Buen estado. 50.000€

VENTA DE TERRENOS

CHIARTZUN Zona Gurutze. Posibilidad de casa. 65.000m². 325.000€

POR DEMANDA PRECISAMOS PISOS EN VENTA y ALQUILER

Avda Felipe IV, 4. DONOSTIA.

943 446 166



Pedro Miguel Etxenike, DIPCko presidentea, jaialdiaren aurreko edizio batean. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

GARA | DONOSTIA

Europako Fisika Elkarteak (EPS) Donostia International Physics Center (DIPC) sarituko du aurtengo Passion for Knowledge jaialdiaren baitan, Materia Kondentsatuaren Fisikan eta Materialen Zientzian egindako ekarpen «nabarmenagatik» eta antolatutako askotariko dibul-

gazio jardueren «arrakastatsuegatik», atzo jakinarazi zuten.

DIPC 2000. urtean sortu zen. Materialen fisikako oinarrizko ikerketan jarduten duen erakundea da, eta euskal zientziaren erreferente bihurtu da, urte gutxi. Ikerketan bikaintasuna bilatzeaz gain, ezagutza zientifiko gizarteratzeko erantzukizuna hartzen du bere gain.

Hain zuzen ere, DIPCK hiru-garrenez antolatzen duen zientzia dibulgazioko Passion for Knowledge jaialdiaren amaiera ekitaldian aitortuko dio bere lana DIPCKri Christophe Rosselk EPSko presidentek, plaka ofizial bat emanek.

Pedro Miguel Etxenike DIPCKo presidentea honela mintzatu zen atzo: «Ohore handia da gu-

retzat EPSren eskutik halako aintzatespena jasotzea, izen handiko erakundea baita EPS, eta lanean aurrera egiteko adore handia ematen digu, DIPC ikerketan eta zientziaren komunikazioan mundu mailako erreferente bilakatzeko».

Era berean, oso garrantzitsutzat jo zuen Passion for Knowledge jaialdiaren testuinguruan EPSk bere Batzorde Exekutiboaren urteko bilera DIPCKren Donostiako egoitzan egitea, irailaren 30ean eta urriaren 1ean. Passion for Knowledge jaialdiak irailaren 27tik aurrerako egitarau zabala prestatu du, eta ondorengo webgunean dago ikusgai: www.p4k.dipc.org.

Zientzia elkarte garrantzitsua

EPSri dagokionez, 1968. urtean sortu zen, eta Europako zientzia elkarte garrantzitsuenetako bat da. Elkarteko kide dira, besteak beste, kontinenteko 42 fisika elkarte, fisikaren arlo guztietako adituak eta Europako ikerketa erakundeak. Guztira, 130.000 lagunek osatzen dute elkarte entzutetsua.

Zientzia elkarte gisa, EPSk fisikaren aurrerapena bultzatzen, Europako fisika komunitatearen interesak defendatzen eta nazioarteko lankidetzan sustatzen ditu.

IRUÑERRIKO EUSKARA IKASLEEK FESTA EGIN ZUTEN

AEKk antolatuturik, Iruñerriko euskara ikasleek (eta ikasle ohiek) festa egin zuten atzo Zentral aretoan. Bertan, Kike Amonarrizzen "Euskara ikasleen patologia linguistikoak: automedikaziorako gida" bakarrizketaz gozatzeko aukera izan zuten. Honekin batera, mintzodromo mundiala ere antolatu zuten eta musika saio ugari ere izan zituzten euskalgetietako ikasurtea indartsu hasteko.

Maia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

